

Prentsa-oharra

Hondakinen edukiontzien kudeaketa adimenduna, giltzarria *smart city*-etarako

- ▶▶ *IK4-TEKNIKER eta MASERMIC elkarlanean dabilta irtenbide bat garatzen, WASTEVOL proiektuaren esparruan*
- ▶▶ *Sentsore anitzeko gailu berri honek logistika eta segurtasun-arloko aurrerapausoa ekarriko dio hondakinen bilketari*

(Eibar, 2019ko irailak 17).- Smart cities izeneko proiektuetan, mugikortasuna, airearen kalitatea eta herritarrentzako zerbitzuen hobekuntza izaten dira erronketariko batzuk, baina horiek bezain garrantzitsua da zabor-bilketaren zerbitzua hobetzea eta, oro har, hirietako hondakinen kudeaketa eraginkorra izatea. Hala, hiriko hondakinen kudeaketa adimenduna faktore giltzarria da smart city-etan.

Erdi hutsik dauden edukiontzietara alferrikako joan-etorriak egitea eta, bestetik, gehien betetzen direnen premiei arretarik ez ematea –sarritan horiek gainezkatzeraino iritsiz–, gaur-gaurkoz, errealitatea da hiri askotan. Halaber, zaila da egon daitezkeen arrisku-egoeren berri goiz edukitzea; hala nola, eguraldi txarraren edo bandalismo-ekintzen ondoriozko suteen edo iraulketen berri edukitzea.

Gauzak horrela, MASERMIC oinarri teknologikodun enpresa, zeinak produktu elektronikoak eta mekatronikoak garatzen, fabrikatzen eta saltzen dituen, eta IK4-TEKNIKER elkarlanean dabilta WASTEVOL proiektuan, edukiontziak monitorizatzeko sentsore anitzeko IoT (Internet of Things) gailu integratu, sendo eta trinko baten kontzeptu berria garatzeko.

Edukiontzi guztiek edukiko dute sentsore anitzeko IoT gailua txertatuta, eta honako hauek izango dira horren eginkizun nagusiak: ontzien betetze-maila denbora errealean detektatzea, edukiontziak geolokalizatzea eta lehen aipaturiko arrisku-egoerak hautematea.

Zehazki, ad hoc gailu sentsoeren garapenean, produktuen garapenean, fabrikazio-teknologietan, materialetan, simulazioan eta kalkulan daukan eskarmentua gaineratuko du IK4-TEKNIKERek, balio-kate guztia hartuko duen irtenbide osoa diseinatu eta garatzeko. Bada, zentro teknologikoak, ultrasoinuen teknologia erabiliz, neurketa-printzipioa baliozkotuko du, kontzeptua probatuko du, eta kontsumoa oso baxua izateari begirako diseinu elektronikoa egingo du, neurri egindako irtenbide bat garatzeko asmoz (irtenbide horrek sentso berria eta low cost sentso komertzialak edukiko ditu txertatuta). Ondoren, amaierako produktura eta horren industrializaziora iritsiko da.

M2Mranzko bidean (machine to machine)

Hainbat alderditan oinarritzen da irtenbidearen balio erantsia, eta horien artean dago neurria txikitu izana; izan ere, sentsoaren neurriak lotura dauka ultrasoinuen teknologiaren bitartez distantziak hautemateko ezar daitezkeen funtsezko ezaugarriekin (igorritako pultsuen maiztasuna, hauteman daitezkeen distantzia-maila handiena edo teknologia mota horren gutxieneko hautemate-eremu intrintsekoaren tamaina).

Hala, kontsumo baxua duen, IoT konektagarritasun-kapazitatea duen eta betetze-maila zehazteko sentsoez gain bestelako sentsoak izango dituen sentso anitzeko plataforma garatzeak hobekuntzak ekarriko ditu edukiontzien logistikarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten alderdietan.

Gainera, geolokalizazioa ahalbidetuko duen sentso anitzeko IoT gailuari esker, goiz hauteman ahal izango dira edukiontzien egoera anomalo posibleak.

Eta, azkenik, tenperatura neurtzeaz gain, gailuak ke-detektagailua edukiko du, edukiontziak su hartzen badu ere goiz hauteman ahal izateko.

Proiektuarekin, hondakinen kudeaketan aurreztuko da, hondakinak hobeto kudeatuko dira, eta ingurumen- nahiz gizarte-inpaktua murriztuko da.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-

maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////